



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
200. zkia . 2007ko uztaila



82 itzuli !!

4-10. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa:Alaiki Elkartea

16-17. Hondarribiko 200 ale

24. Kasino Zaharra

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31.Ekainako demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea - Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



CLUB NAUTICO HONDARRIBIA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA



Ixabel Olazabal

Euskarako zinegotzi berriaren agurra



Joan den maiatzaren 27ko hauteskundeetan herri-tarrek emandako botoei esker, berriro Hondarribi-ko Udaleko zinegotzi izendatu naute, eta karguen banaketa egiterakoan, Euskara arloko arduradun izatea egokitu zait.

Atsegin handiz hartu dut izendapen hori, eta gogoz eta ilusioz ekingo diot nire lanari, baina erronka handia da, eta argi daukat bertako teknikarien aholkuak eta laguntza eta gainontzeko udal-kideen lankidetzaren ezinbestekoak izango ditudala Hondarribian euskararen egoera hobetzeko, eta batik bat, erabilera bultzatzeko plan txukun bat garatzeko.

Udal Euskara Zerbitzuak, laurogeigarren hamarkadan sortu zenetik, euskara bultzatzeko hainbat plangintza garatu ditu, eta urtean zehar zenbait ekintza antolatzen ditu, horietako batzuk finkatuta daude, beste asko berriz,

aldian aldikoak izaten dira. Nire ustez, guztiak beharrezkoak direnez, aurrerantzean ere mantentzen saiatu behar dugu.

Baina ideia eta proposamen berriak ere jasotzeko prest nago, horregatik herritarren ekarpenak oso baliotsuak izango dira, Euskararen Aholku Batzordean formalki aurkeztutakoak edo bakoitzak nahi duen bidea erabiliz egindakoak.

Beraz, Hondarribiko Udal Euskara Zerbitzuak orain arte bezala jarraitu nahi du, Udaletxe barruan nahiz Udalerrin osoan euskararen erabilera bultzatzeko ahaleginean, bere helburu nagusia horixe baita. eta horretarako guztion lankidetzaren eskatzen du.

Ixabel Olazabal

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

29- Erauskin San Pedro, 22	943 641018
31- Iraola San Pedro, 5	943 641027
5- Mayi Martinez Almirante Alonso kalea, z/g	943 642191
12- Iraola San Pedro, 5	943 641027
15- Alameda Harresilanda, 9	943 645798
19- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea	943 644316
26- Almajano Mendelu, 26	943 640068

TXANDAKO OKINDEGIAK UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

29- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212
31- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975
5- Garmendia Portuan	943 641136
12- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212
15- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975
19- Garmendia Portuan	943 641136
26- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212

Sabino Arana kaleko argiteria aldatu egingo da

Sabino Arana kaleko argien iraupena agortu da, 80ko hamarkadan jarri baitziren farola horiek; eta udalak kale horretako 25 farolak ordezkatzeari baki du argiteriaren kalitatea hobetzeko asmoz eta aldi berean estetika aldatzeko, eta burdin galbanizatuzkoen ordeztuzkoak jartzea, berriagoak.

Aldaketa horren aurrekontua 166.793 eurokoa da eta SOLETEC enpresak jarriko ditu.



Sabino Arana kaleko argiteria aldatu egin da

22 proiektu aurkeztu dira Musika Eskolako proiektuaren lehiaketara

2007ko maiatzaren 29an bukatu zen Musika Eskolako (Musika Banda eta Txistulari Banda) Proiektuaren idazketarako, deitutako Lehiaketan aurreproiektuak aurkezteko epea.



Musika eskolaren irudi bat

Guztira 22 lan aurkeztu dira, eta lehiaketa mota hauetarako kopuru handia da; bestalde proiektu honek interes handia sortu du.

Pleguaren ezaugarrien artean nabarmen dezakegu eraikina 550 m²ko orubean kokatuko dela. Aurreikusitako eraikinak sestra gainera 4 solairu edukiko ditu eta bi sestrapean.

Lehen solairuan musika eskolako gelak eta zerbitzuak izango dira eta bigarren eta hirugarrenak bete gabe geratuko dira zein helburu duten jakin arte.

Aitor Kerejetak, alkateak, honako hau aurreratu du: "aurten bertan zehaztu behar dugu zein proiektu nahi dugun, datoren urtean eraikitzen hasteko. Erabaki hori hartzeko beharrezkoa den denbora hartuko dugu. Oso proiektu garrantzitsuaz hitz egiten ari gara, eta gainera hirigune historikoan eraikiko dena, eta horrexegatik eraikinaren kanpoko tratamendua zaindu beharko dugu".

Hondarribiko alkateak erantsi du: "eraikin honi esker askotan eskatutako ekipamendua lortuko dugu eta amaiera emango dio azken urteotan musika eskolak bere jarduerak garatzeko izan duen egoera kaskarrari. Eraikinak ekitaldi-aretoa izango du, 100 bat lagunentzat, eta horri esker hirigune historikoan kultur jarduerak antolatu ahal izango dira."

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Emekiren XIV. Margo Lehiaketa abuztuaren 12an izango da

Abuztuaren 12an, igandea Emeki Elkartek, Kaleko XIV. Margo Lehiaketa antolatuko du. Margo lehiaketa hau herriko toki ezberdinak ezagutzeko aproposa izaten da, paisaia hauek margotzea ezinbesteko baldintza baita.

Iazko edizioan parte hartu duten artistak ia ehun izan ziren, egun honi xarma berezia ematea lortu zutelarik, edonon ikus baitzitezkeen eta margolariak. Helburua, hiri-ko toki berezienak, paisaiak eta monumentuak nabarmentzea da.

Lehiaketaren epaimahaia honako hauek osatu zuten: Susana Zaldivar, Enrique Albizu, Fernando Mikelarena, Jose Gracenea, Isabel Apaolaza, Conchi Pascua eta Maite Gorostidi. Hartutako erabakiaren arabera, honako hauek izan ziren sarituak:

1. Saria: ISABEL ARRILLAGA (IRUN)
 2. Saria: JOSE RAMON GUERRA (GORLIZ) BIZKAIA
 3. Saria: ALEJANDRO ORDOKI (LESAKA) NAFARROA
- Akzesita: EVA MARIA RAMOS (DONOSTIA)



Iazko lehiaketaren une bat

Idoia Sagarzazu aktore hil da

Antzerkian eta zineman ere aritu arren, telebistan egindako lanek egin zuten, batik bat, ezagun. Bikoizketan aritzen ere aritzen zen.

Euskal eszenako aurpegi ezagunenetako bat zen antzerkian, zineman, bikoizketan eta, batik bat, telebistan egindako lanei esker. Besteak beste, Maite filman parte hartu zuen, In fraganti antzezlanean, Teilatupean, Benta berri edota Ganbaran bai telesailetan, eta Aste Ero telesaiogan (Martxelo Otamendi zen zuzendaria). Euskarazko ekoizpenak bultzatzen ere lan handia egin zuen.


Arizkunen (Nafarroa) bizi zen azken urteetan. Nekazalturismo etxea zeukan.

Politikan ere ibili izan zen jendaurrean. Esaterako, Baztango EAJren lehendakaria izan da azkenaldian, hil arte, eta 2004an Espainiako hauteskundeetan jeltzaleen zerrendako kide izan zen.

Antzerki munduko lagunak Sagarzazuren aldeko omenaldia prestatzen ari dira eta hurrengo egunetan egingo diote.



Idoia Sagarzazu aktorea



Ikasturte honetako Mintzalaguna amaitu da



Mintzalaguna arrakasta nabaria izan da

Ikasturte honetako Mintzalaguna iraupenean laburra bezain oparoa izan da partehartzaidetzan. Eskualdeko 80 lagunek hartu dute euskaraz aritzeko erabakia.

Irun Iruten euskara elkarteak, batetik, zoriondu nahi ditu euskaraz hitz egiteko aukera egin duten 57 euskara ikasleak eta, bestetik, eskerrak eman nahi dizkie Mintzalaguna antolatzeke laguntza eskaini duten Irungo eta Hondarribiko udalei zein euskaltegiei.

Era beren, esker berezia luzatu nahi zaie euskara ikasleek euskaraz aritzeko aukera izan dezaten euren denbora eskaini duten 23 mintzalagunei, izan ere, hauek gabe Mintzalaguna garatzea ezinezkoa bailitzateke.

'Kilika' izango da aurtengo jaietako irudia



Pedro Garcia Larretxearen kartela

Aldardeko hatxeroak izango dira protagonista aurtengo Hondarribiko jaiak iragarriko dituen kartelan. Irudian ikusten den Kilika izeneko lanaren egilea Pedro Garcia Larretxea da eta jaiak iragartzearekin batera, 650 euroko saria eraman du. Irundarra da eta egun Madrilan bizi da, Hondarribiarekin oso lotuta dago, bertako batekin ezkondua baitago. 'Kilika' jaietako programaren irudia izango da era berean.

Bigarren saria, Jon Goikoetxea eta Maider Calvoren Koadri-la lanarentzat izan da. 300 euroko saria lortu du. Kartelak, bost lagun agertzen ditu, bakoitza Alardeko konpainia baten uniformearekin ageri da.

Lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak, Zuloaga Etxean era-kutsiko dira irailaren 1etik 15a bitarte.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga,4
 Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Alkartasuna Elkartearen frontoia ireki da



26 metroko luzera dauka frontoiak

Amuteko kirol zonaldea egiten dugunean han ere beste bat eraikitzeke asmoa dugu. Alkartasuna elkarteko frontoia eginda dago eta orain elkarteko bazkideek izango dute berari bizitza emateko ardura".

Berrotaran zinegotziak aldiz, "egia bilakatu den amets baten aurrean gaudela esan zuen. Gune urtsu bat da, arazo ugari genituen. Lurraren kota zela eta arazoak genituen eta frontoi baten eraikuntzak maila berdindu egin du eta kirola egiteko gune berri bat eraiki dugu. 75 bazkide gara elkartean, haur asko daude, eta ziur gaude erritmo handiko inguru bat izango dela".

Frontoia egiteaz gain, elkartearen teilatua birgaitu egin da eta uren kanalizazioaren arazoa konpondu. Ekitaldia amaitzeko, Alfonso Peyek, apaizak, frontoia bedainkatu egin zuen.

Alkartasuna elkartek frontoi berria dauka. 26 metroko luzeradun frontoia herenegun ireki berri da ofizialki, Aitor Kerejeta alkatea, Gregorio Berrotaran zinegotzia, Alfonso Pey Guadalupeko apaiza, Xabier Argiñarena Landa Garapenerako Foru Zuzendaria eta Juan Cruz Alberdi, Behemendi elkartearen ordezkari bezala jaso dituen ekitaldi batean. Proiektuaren kostua 160.000 eurokoa izan da, horietatik 120.000 Udalak jarri dituelarik. Gainontzekoa Behemendik ipini du.

Kerejeta alkateak esan zuenez "Alkartasuna elkartetik bere lokalaren atzealdean frontoi bat egiteko asmoa zutela esan zigutenean, Udalean ez genuen inongo duda izpirik izan. Gure asmoa pilota ahalik eta herriko auzo gehienetara heltzea da. Jaitzubian egin zen bere garaian, orain honako hau daukagu hemen eta gero,



Irekiera ekitaldian bildu ziren agintarien irudi bat



**BAR
HONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



Jatetxea
txantxangorri

San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Karmen Eguna ospatu dute arrantzaleek

Arrantzaleek egun handia ospatu zuten uztailaren 15ean, Karmengo Amabirjina-ren egunean. Aspaldian Hondarribian (eta kostaldeko herri askotan) ospatzen zen eguna dugu. Gero, zenbait urtez ez zen ezer antolatu, eta duela bospasei urte Portuarraken Asoziariyua elkarteari esker, ohitura zaharra berreskuratu egin zen. Aurten igandean ospatu da, uztailaren 15ean.

Arratsaldeko bostetan meza izan zen Portuko elizan, lau arrantzale jubilatu Amabirjiñaren irudia sorbalden gainean eraman zutelarik. Ondoren, irudia Ardoran ontzian sartu zen, lore koroa eta



Amabirjina arrantzale zaharrek eraman zuten ontzira



Ekitaldiaren beste une bat

Kofradiako bandera hurbil zituelarik. Ontzian, Damaso Uranga apaizaz gain, Borja Jauregi alkatea eta Aitor Kerejeta alkateordea zeuden, baita hainbat arrantzale ere, ekitaldiaren antolatzaile eta ikusle ugari ere bai.

Behin itsasora atera ondoren, inguruan hainbat itsasontziren laguntzarekin, Gure Aita erreztatu zen, eta apaizaren hitzak entzun ondoren, Guadalupeko Salbea abestu zen, koroa uretara jaurti zelarrik. Ekitaldia ordu erdiz aurreratu zen; nahiz eta eguraldi bikaina eduki egun guztian zehar, arratsalderako enbata iragarritako zegoen. Azkenean ahal zen modura egin zen eta beste urte betez ama birjiña omendu zen.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Blues jaialdi arrakastatsua ospatu da



Bigarren aldia izan da aurtengoa

Uztailan jazz jaialdiek berentzat hartzen duten protagonismoari nolabait aurre eginez, Hondarribiak blues jaialdia aurkeztu du uztailaren 13 eta 14an. Bigarren urtez eta iazko asmoak aise gaingituz, A.M. Blues Hondarribia elkarteak nazioarteko izen handi ugariz osatutako egitaraua prestatu zuen eta bi egunetarako Benta Zaharraren zonaldea topetaraino bete du. Nazioarteko artistei dagokienez, besteak beste, Janiva Magness, Bob Margolin, Willie Big Eyes Smith, Hubert Sumlin eta Mingo Balaguer and The Blues Intrudersek parte hartu dute. Euskal Herriko taldeak ere izan dira, eta horien artean, 'Chicago Botanic Garden', hiru hondarribiarrek osatutako blues talde berria.

Bigarren urtea besterik ez du Hondarribiko blues jaialdiak, baina urrats handiak egin ditu hilabete gutxi hauetan, eta etorkizunera begira "bluesaren erreferentzia" bihurtzeko helburua dute antolatzaileek: "Orain, hastapenetan, erakundeen laguntza behar du, baina gerora begira bere kasa ibiltzea da gure asmoa", azaldu du Aitor Kerejeta alkateak. Jaialdiko kontzertu guztiak doakoak izan dira, salbuespenik gabe.

Santa Maria Magdalenako jaiak igaro dira

Duela gutxi igaro dira Santa Maria Magdalenako jaiak. Udaleko Kultura sailak Jai Batzordearekin batera lan egiten du jai hauek antolatu ahal izateko.

Hasiera ofiziala larunbatean izan zen, arratsaldeko 16.00etan, Magdalenako auzoa banderatxo eta serpentinaz apaindu zelarik. 17:00etan, gaztetxoan V. marrazki eta margo lehiaketa ospatu zen, 4 eta 10 urte bitarteko neska eta mutilentzat. Antolatzaileek partaide guztiei beharrezko papera eta margoak banatu zizkieten.

19:00etan, txupinazoa bota zen, jaiari hasiera emanez. Ordu erdi geroago dantza emanaldi bat eskaini zuten Hondarribiko Gym-Jazz Dantza Akademiako ikasleek. Jaiaren lehen eguna bukatzeko, 22:30etan Hondarribiko Hiria Musika Bandaren eskutik kontzertua izan zen.

Igandean, Magdalena egunez, egitarauak aurrera jarraitu zuen. 8:30etan, Irungo Urantz Dultzaineroek diana jo zuten auzoan eta Portuko kaleetan. 11.00etan meza egon zen Portuko Elizan, ordu bete geroago hamaiketako bat eta erraldoiak eta buruhandiak joan zirelarik auzora. Horrekin batera, Scalextric lasterketa (11:00etan), haurrentzako jolasak, jubilatuen afaria (21:00etan) edo musika dantzaldiaz gozatu ahal izan zen.



Jende ugari biltzen da jaietan



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK
Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Beñat Bandres Espainiako txapeldun geratu da

Skiff infantil mailan, Elkartearen historian lehen aldiz



Etorkizun handiko arraunlaria da Bandres

Hondarribia Arraun Elkartearen historian lehen aldiz skiff infantil mailan Espainiako txapeldun bat bada. Beñat Bandres hondarribiarrak lortu du sari garrantzitsu hori. Neguan eta udaberrian egindako lanak bere fruituak eman ditu, ez bakarrik Bandresentzat, baita Arraun Elkartearen banku higikorrean lanean aritu diren arraunlari gazte guztientzat ere.

Uztailaren hasieran ospatu diren Espainiako Txapelketetan, urrezko eta brontzezko domina bana lortu dute, baina urte osoko balantzea eginda, Espainiako txapeldun bat (aipatutako Bandres), lau txapeldun orde (zortziko seniorra, lemaizain gabeko jubenila, zortziko jubenila eta lau scull emakumezkoa) eta bi brontzea (binakako scull emakumezkoa eta zortziko infantila) lortu dira.

Elkarteko koordinatzaile teknikoa den Edorta Kanpandegi pozik agertu da. "Oso lan ona egin da Elkartean, eta emaitzak hor daude. Aurrera jarraitzeko indar berria ematen digu honek".

Legealdi berriko lehen osoko bilkura ospatu zen

Legaldi berriko lehen Osoko Bilkurak EAJ eta EA alderdien arteko akordioa berrestu zuen, eta udal talde berrian bakoitzak izango duen karguak zehazteko balio izan zuen. Eguneko Aztergaiaren lehen hiru puntuak, Udal Talde Politikoen eraketaren berri ematea eta Bozeramaileak izendatzea, Alkateordeak izendatzeari buruzko Alkate Dekretuaren berri ematea eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzeari eta Batzorde horren bilkuren maiztasunari buruzko Alkate Dekretuaren berri ematea izan ziren.

Udalkideek jaso beharreko diru sariak izan ziren beste puntu garrantzitsu bat. Alderdi bakoitzeko osagai finkoagatik 490 euro eta 450 taldeko zinegotzi bakoitzarengatik. Udaletxean dedikazio osoz lan egingo dutenentzat soldatak ere onartu ziren: 67.000 euro urteroko Alkateak, 50.000 euro bigarren alkateordeak, 42.000 hirugarrenak eta 30.000 laugarrenak.

Ion Elizalde (EA) izango da Hondarribia Lantzen-en buruan, Garapen Industrial, Etxebizitza eta Agenda 21aren erantzule izango delarik; Juan Mari Altuna (EAJ) Ogasun, Antolakuntza, Udaltzaingo eta Zerbitzuen buru izango da; Xabier Tife (EA) Kultura eta Kirolen erantzule eta Maite Peláez (EAJ) Gizarte Zerbitzuak, Gazteria, Merkataritza eta Turismoaren arduradun izango da.

Azkenik, Isabel Olazabalek (EA) Euskara eta Hezkuntza hartuko ditu bere gain, Gregorio Berrotarnek (EAJ) eta Florentzio Arrietak (EA) Nekazaritza eta Zerbitzu Mankomunatuak zainduko dituzte.



Osoko Bilkuraren irudi bat

Aise
1971-1974

Aise Iruñean eta
orain **Hondarribian!**

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92

E-mail: aisebidasoa@euskalerrria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Eusko Jaurlaritzak Kaizarra eremua birgaitzea aztertu dute Udalarekin batera

Joan den astean bildu ziren lehen aldiz Gasteizen Aitor Kerejeta, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lanetarako Sailburuarekin, Nuria Lopez de Guereñurekin, Hondarribiarekin zerikusia duten zenbait gai aztertzeko, eta horien artean Kaizarra eremua birgaitzeari eragiten dion guztia.

Kaizarra birgaitzearekin zerikusia duten hainbat proiekturen artean, lurrazpiko aparkalekuaren proiektua eta era berean Bidasoa eta Butron Ibilbideak lotzeko proiektua aztertu zituzten eta azaleran sortuko litzatekeen erabilera publikoko espazio irekia. Interes handiko beste puntu bat, Itsas Etxea handitzeari buruzkoa izan da, ekitaldi-aretoa egiteko Hondarribiko anbulatorioa berrantolatzeko.

Kaizarra eremua portu-jabarikoa da eta horren ondorioz, Eusko jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren esku-menekoa. Kaizarra eremua birgaitzeak Garraio eta Herri Lan Sailaren partaidetza aktiboa behar du, beharrezkoak diren emakidak eskuratzeko.

Bi ordu luzez egingo dako bileran bai Hondarribiko Alkateak bai Garraio eta Herri Lanetarako Sailburuak interesa erakutsi zuten aipaturiko proiektuetan aurrera eraman eta horrela Hondarribiko hirigune garrantzitsu eta jendetsuena birgaitzeko.




Lopez de Guereñu eta Kerejeta

Udalak urrezko domina emango dio Remigio Mendiburu zenari

Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak legealdi berriko lehen bilkuran herriko urrezko domina Remigio Mendiburu zenari ematea erabaki du. Hondarribiko eskultore hau jaio zenetik iaz 75 urte bete ziren.

Aitor Kerejeta, Hondarribiko alkateak esan duenez, "iaz Mendiburu zenari hau bezalako ezagupen bat emateko asmoa genuen, baina une haietan gertatu zen ezbehar bat dela eta, erabakia bertan behera utzi behar izan zen. Aurten, irailaren 7an, Remigio Mendiburuk ongi merezitako saria jasoko du, bere familiartekoei emango diegularik".

Ekitaldia irailaren 7an izango da eguerdiko 12,15etatik aurrera, herriko jaia ofizialki hasi eta berehala.



EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

ALAIKI ELKARTEA

JESUS OTXOA



San Pedro kaleko 13. zenbakian dagoen txokoa da eta urte batzuk badira sortu zutela. Halaxe, hilabete honetako elkarrizketaren atala Alaiki elkartearen eskutik dator edo, gauza bera dena, bertako ordezkari den Jesus Otxoaren ahotik. Kontuak kontu, 40 urte pasatxo dituen elkarte honen inguruko gorabeheren berri eman digu Jesusek eta gehiegi luzatzea askotan alferrik izan ohi denez, hona jarraian Alaikiri buruz azaldutakoak.

Noizkoa da elkarte? Honezkero, urte batzuk izango ditu...

Urte batzuk baditu, bai ; 40 inguru. 1964-1965. urte artean sortu zuten Gamarra medikuak eta beste batzuek, nahiz eta elkartearen sorreran nik ez nuen parte hartu eta nondik norakoak ez ditudan zehatz-mehatz ezagutzen. Alaiki elkarte jolas eta izaera kulturalako elkarte da.

Elkarte handia al da zuena?

Gure elkarte Hondarribiko beste edozein elkarte beza-

lakoa da, baina hainbat elkarterekin alderatuz gero, ezin esan bazkide kopuruari dagokionez handiegia denik (60-65 lagun baikara guztira hemen gaudenak). Hel-duak gazteak baino gehiago gara, nahiz eta arrantzale gazteak badauden gure artean. Bazkide guztiak gizon-nezkoak gara, baina emakumezkoek ere parte hartzen dute elkarteko ekintzetan.

Elkarteko kide izan nahi duen edonork zer egin behar du bertan sartzeko?

Elkartean sartzeko ez dago baldintza jakinik; Hondarribiko gainerako elkarteetan bezala, nahikoa da bertako


AXOLA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542



**RESTAURANTE
ASADOR**

MINERE

C/ MAYOR, 31
TEL. 943 64 35 00
HONDARRIBIA



Ainara Elizondo

kide izan nahi izatearekin eta urteroko kuota ordaintzearekin. Ez diegu aparteko mugarik jartzen bertako kide izan nahi dutenei.

Ondo konpontzen al zarete elkarrekin?

Bai, hainbestean. Nik dakidala, ez dago liskarrik bazkideon artean. Orokorrean ondo moldatzen gara.

Ze ekintza antolatzen dituzue?

Lehen tortilla pintxoak eta beste zenbait ekintza egiten genituen, baina iaz utzi genion tortillak egiteari. Arraunlariekin bazkari-afariak egin izan ditugu, futbolearen ere lagundu izan dugu... hitz batean, gure esku dagoena egiten dugu. Alaiki ez da oso elkarte handia eta normala den bezala, baliabideak ere ez dira beste edozein elkarte handi baten adinakoak.

Proiekturik ba al duzue esku artean?

Lokala duela gutxi berritu dugu; segurtasun atea jarri eta lokala intsonorizatzea izan dira egin ditugun zenbait berrikuntza.

Dirulaguntzarik jasotzen al duzue?

Ez, ez dugu jasotzen, baina egia esan behar bada, eskatu ere ez dugu laguntzarik eskatu izan; halakorik egitea ez zaigu bururatu orain arte. Agian, eta bide batez orain alkate berria dugula, hemendik aurrera zer-

bait eskatzera ausartuko gara (kar-kar-kar!)

Zein da zure zeregina elkarteko presidente bezala?

Erdi broman esanda, nire zeregina egunero haserre egotea da. Batek kuota ordaindu ez duelako, besteak



Jesus, Alaiki elkartean

beste zer edo zer egin ez duelako... jendearen atzetik ibili behar izaten dut gehienetan. Hala ere, nik uste elkarte gehienetan gertatzen den gauza dela hori. Jende asko dabilen lekuan nolabaiteko kontrola eraman behar izaten da eta denak berdinak ez garenez, bada...

San Pedro 49, bajo 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 641 995	Zuloaga, 8 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 111 656

	GESTIÓN: CONTABLE, FISCAL, LABORAL * SEGUROS
GESTIOA: * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA ETA LANAREKIN LOTUTAKOAK * ASEGUROAK	



Atunaren harrapaketak behera egin du iazkoarekin konparatuz

Euskal arrantzaleek diotenez, hegaluzearen harrapaketak "iazko erdira" ez dira iristen. Alegia, garai honetan iaz harrapatutakoa askoz gehiago izan zen. Maiatzaren azkenean hasi zen kanpaina, eta azaroren hasiera arte iraungo du. Jadanik arrantzaleak balorazioak egiten hasiak dira. Hala ere, azken egunotan kostera "normalduz" doala dirudi, eta hegaluzearen arrantza gora doa. Hala eta guztiz ere, "kanpaina salbatuko den ziurtasunik ez" dutela azaldu dute. Era berean, "prezio baxuengatik" arduratuta daude.

Hala, uztailaren erdialdera portuan, egunean 5.000-10.000 kilo hegaluze eta hegalabur porturatzen diren tokian, kiloa lonjan 3,50 eurotan saldu zuten batez beste. Hegaluze pieza normalak 3,30 eurotan saldu zituzten eta

pieza handiak 3,60 eta 3,80 euro bitartean. Arrandegietan, oster, hegaluzea sei euroren bueltan dago.

Kofradiatik esaten digutenez, uztailaren 16rako, 340.949 kilo atun saldu dira, eta 151.396 kilo hegaluze.

ARRANTZALE KOFRADIAN EKAINEAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 1.870,20 kilo
Hegalmotza (Thunnus alalunga): 115.092,00 kilo.
Hegaluzea (Thunnus thynnus): 5.049,00 kilo.
Lanpo (Euthynnus pelamis): 49,00 kilo.
Boga (Boops boops): 2.400,00 kilo.
Zapatari (Gerris): 40,80 kilo
Erla (Lithognathus mormyrus): 3,80 kilo.
Makarela (Scomber japonicus): 455,30 kilo.
Muxar handia (Diplodus sargus): 10,40 kilo.
Lupina (Dicentrarchus labrax): 1,60 kilo.
Bestelakoak: 4,40 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)



La bacaladera S.A.U. **pasaia** **don saladc**

Pol.n.Chumarra - Escorza - 20300 Irun
 Telf: 943 63 90 33 Fax: 943 63 06 70 www.bacaladera.com



Erreginaren Baluartearen irekiera bikaina

Erreginaren Baluarte Birgaitzeko Obrak bukatu ondoren, uztailaren 20an, ostiralean, zabaltze-ekitaldia egin zen. Baluarte XVI. mendearen hasieran Hondarribian eraikitako Gotorleku errenazentistaren zati bat da. Hondarribiko alkateak, Aitor Kerejetak, gidatu zuen zabaltze-ekitaldia, eta bertan, foru aldundiko eta autonomia erkidegoko agintariak izan ziren. Han izan ziren beste askoren artean, Markel Olano Ahaldu Nagusi berria, eta nola ez, Udaleko zinegotzi gehienak, baita Hondarribiko kultur elkarte gehienetako ordezkariak.

22.00etan Baluartearen patioetako batean kontzertu bat eskaini zuen Cámara Landarbaso Abesbatzak, denontzat eta dohainik, Kutxak finantzaturikoa eta Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean.

Erreginaren Baluarte 2006an hasitako obren bidez Hondarribiko Hirigune Historikoan garrantzi handiko gune historiko eta arkitektonikoa berreskuratu nahi izan da. Proiektuaren egileak Manuel Iñiguez eta Alberto Ustarroz arkitektoak izan dira eta proiektuaren helburu nagusiak Erreginaren Baluarte mantentzea, konpontzea, finkatzea, eta hondakin egoera sendotzea izan dira, osatzen duten elementu arkitektoniko guztiak balioetsiz, bai jatorrizkoak, bai Manuel Manzano Monis arkitektoak joan den mendeko 60ko hamarkadan berreraikitakoak.

Era berean, jarduketa honen bidez Erreginaren Baluarte birgaitu nahi izan da jendearen gozamenerako segurtasun eta erosotasunarekin ibilbide guztietan, berreskuratutako egitura arkitektonikoetan zehar. Horrela, hondarribiarrak edo aldiko bisitariak esperimentatu ahal izango du - analogikoki eta didaktikoki - monumentuaren jatorrizko defentsarako funtzioa eta aldi berean parke arkeologiko eta naturalista moduko ikuskera berria, Baluarteak gaur egun duen irudia hondakin erromantiko edo bitxi gisa finkatuz. Guzti hori asmo handiko udal plan baten barruan harresia berreskuratze erabilera publikorako hiriko lehen monumentu nagusi bezala.

Obra hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ez Ohiko Planaren barruan sinatutako hitzarmen bati esker izan da. Era berean Eusko jaurlaritzaren laguntza izan du.

Erreginaren Baluarte gidatutako bisitak Hondarribiko Turismo Bulegoaren bidez (943. 645. 458) egin daitezke. Hondarribiko Udalak liburuxka bat argitaratu du Erreginaren Baluartearen historiari eta birgaitze lanei buruzkoa, Turismo Bulegoan nahi duenarentzat.

Erreginaren Baluarte irekia izango da egunero 10.00etatik 22.00etara.



Aitor Kerejeta alkatea eta Markel Olano Ahaldu Nagusiak moztu zuten zinta

Hondarribia aldizkariak 200 ale bete ditu

Gaur egun, 2000 ale argitaratzen dira hilero eta 825 etxetan jasotzen da

200 ale, zenbaki berezia inondik inora. Hondarribia udal aldizkaria ale kopuru horretara heldu da, jende askok hogeitaz luzeetan egindako lanari esker. Ez gara orain urte hauetako guztietako laburpen bat egiten hasiko, duela hilabete batzuk, 2006ko abenduan, hogeigarren urtearekin batera ale berezi bat argitaratu baikenuen, eta errepikatzea izango litzateke.

Hala ere, aldizkariari buruz zenbait ezaugarri ematea ez da soberan. Hondarribia euskara hutsean eginga den herri aldizkaria 1986. urteaz geroztik kaleratzen da. Hilabetekaria da eta doako harpidetza eskaintzen du bere etxean jaso nahi duenarentzat.

Zenbaki bakoitzean 2000 ale kaleratzen ditu eta 825 harpidedunei banatuta geratzen direnak. Hortaz gain, herriko liburu-dendetan eta antzeko lekuetan jartzen dira nahi duenaren esku.

Aitor Kerejetak, alkateak, esan duenez, "ez da ez batere erraza aldizkari batek hogeitaz luzeetan betetzea, are gutxiago aldizkari hori euskara hutsez idatzita dagoenean. Guztiok badakigu euskarazko hedabide baten merkatua urriagoa dela gaztelerazko batena baino, horregatik borroka beti da gogorragoa. Udaletxe honetatik, eta zehazki, Euskara Batzordetik gogor lan egin da aldizkari honen alde. Momentu on eta ederrak egon dira, okerrak ere, baina balorazio ezin positiboagoa egin dezakegu ibilbide honi buruz. Oso eskertzeko modukoa da ere aldizkari honen alde hainbat denbora, esfortzu eta izerdi eman duten kolaboratzaile zintzo haiek egindakoa. Batzuk jadanik gure artean joandakoak, besteak hemen daudenak eta batenbat osasun aldetik makal, mila esker denei. Beraien lana ahaztuko bagenu, akats bat egingo genuke".



Ez gara gehiago luzatuko. Bi orrialde hauetan aldizkariak zer nolako eboluzioa izan duen ikustea besterik ez duzue egin behar. Jende askok lagundu du, beti ere euskararen alde lanean.

Zorionak denei eta mila esker!





200 ale



82 itzuli eman zituen Aroa Blancok kutxarekin

Datorren urteko kanpaina ona baino hobeia izango da: hala dio kondairak, arrantzaleen kofradiako Kutxa entregatzeko aurtengo arduradunak, Aroa Blancok, 82 buelta eman baitzituen Santiago egunez Hondarribian.

Bertako arrantzaleek mendeak daramatzate Kutxa Entregaren festa ospatzen. Garai batean, kofradiako erlikiak barruan zituela, botere aldaketaren sinbolo zen eta abade zaharraren etxetik berriaren etxera eramaten zuen herriko neska batek. Kutxa buru gainean, zenbat eta buelta gehiago eman arrantza oparoagoa izango zela seinale.

82 buelta eman ondoren, oparoa izango dela seguru zegoen Norberto Emezabal, Arrantzaleen Kofradiako lehendakaria: "Orain arte bezala jarraitzeko behintzat!". Berriz ere atunaren kanpainarekin jarraitzeko itsasora bueltatu baino lehen, giroaz gozatu zuten Emazabalek eta gainerako itsasgizonek.

Kutxa buru gainean ondo jarri eta kofradiatik irten eta elizarako bide guztian kalearen bi aldetan bildutako milaka pertsonen animo eta txaloak jaso zituen. Kontzentratuta, irribarrea ez zuen galdu, ez arrantzale eta arraunlarien artean igotzerakoan, ez elizan 2006eko kontuak irakurri eta kofradiara itzultzerakoan, eta ezta herriko bandaren musikarekin bueltak ematen hasi zenean ere.


Festa giroan, lehengo urteko kontuak aztertzeko denbora ere izan zuten arrantzaleek. "Arrantza gehiago baina diru gutxiago", kezkatuta ageri zen Aitor Kerejeta alkattea. Dena den, Kutxa kofradian berriro gorde eta urte hobeago baten promesarekin, festarekin jarraitzea erabaki zuten guztiek.



Agintariak Kutxaren atzetik joaten dira



Txotxuak ez dute inoiz hutsik egiten



Blancok sasoian dagoela erakutsi zuen

Jaizubiako harri zulatzaileak nagusi dira Ligan

Hondarribiakoak jaun eta jabe izan ziren Ligako hirugarren jardunaldian, eta zulo bateko aldea kendu zieten bigarren sailkatuei. Sailkapen nagusian ere aldea gehitzen ari dira kirolari gipuzkoarrak. Jaizubia oso indartsu dago, eta Euskal Herriko Ligako hirugarren jardunaldia ere haientzat izan da. Lehen saioan ez ziren nagusitu, baina beste bietan lehen postuan amaitu dute, eta sailkapen nagusian ere tartea zabaltzen hasi dira.



Lan bikaina burutzen ari dira hondarribiarrak

Muskizen jokatu zuten hirugarren jardunaldia eta Hondarribiakoak jaun eta jabe izan ziren, eta zulo bat pasako aldea kendu zieten Txorierrikoiei. Azken horiek ere gorantz datoz, eta azken bi saioetan ikusitakoaren arabera, haiek ere oso kontuan hartu beharko dira.

Egungo txapeldunak oso indartsu dabilta, nahiz eta taldean hutsune bat baduten, bera ordezkatzan ari dena ere

bikain ari da, eta zulorik gabeko taldea dela erakusten ari da.

Jardunaldiko sailkapenean, Jaizubia izan zen lehenengoa, eta Hondarribiakoak 17 zulo eta 6,2 cm egin zituzten. Bigarren geratu zen Txorierri, 16 zulo eta 3,3 cm eginda. Hirugarren, berriz, Galdames sailkatu zen 14 zulo, eta 4,1 cm eginda. Laugarren izan zen Kabiezes 12 zulorekin. Bosgarren, Aldai Alde geratu zen 11 zulo eta 6,6 cm eginda, Zazpigarren postuan izan

zen Errekatxo 11 zulorekin. Zortzigarren Gallarta sailkatu zen 10 zulo eta 9,1 cm eginda. Bederatzigarren izan zen Ortuella 10 zulo eta 8,4 cm-rekin, eta azkena geratu zen Arboleda 8 zulo pasatxorekin.

Hirugarren jardunaldiaren ostean, Jaizubiak jarraituko du sailkapeneko estreinako postuan 29 punturekin, Galdames dago bigarren 25ekin, eta Txorierri doa hirugarren postuan, eta horiek 23 puntu batzen dituzte.

Eskubaloit taldea 'Bacaladera Hondarribia' izango da

Urte beteko akordioa sinatu da

La Bacaladera enpresak eta Hondarribiko eskubaloit elkartek akordio berri bat sinatu dute, irailan hasiko den denboraldian taldea 'Bacaladera Hondarribia' izango delarik.

Jose Mari Salvador, La Bacaladera-ko zuzendaria eta Francisco Martín del Pino, taldeko zuzendariak aurkeztu zuten akordioa. Espainiako Lehen Dibisioan jokatu du Bacaladera Hondarribiak.



Jose Mari Salvador eta Francisco Martin



**eukeni
optika**

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

**Focus
DAILIES™**

Ikusmen egokitze-
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire
betaurrekoak
nire lentillak
Focus DAILIES



**CIBA
Vision**

Iritsi da Euskal Tonbola Bidasoa aldera ... rist-rast irabazi

Euskal Tonbolaren 3. edizioa heldu da Irun eta Hondarribiako 24 tabernetara. Euro bakar baten truke zure herrian rist-rast sariak irabazteko aukera izango duzu: txartela eskuratu, hazkatu eta saria tabernan bertan jaso! Rist-rast eta autoak, autojiro hegaldiak, Home Cinemak eta 42 hazbeteko telebistak banatuko ditu Euskal Tonbolak.

Urtero, egitasmo desberdina plazaratzeko helburuarekin, jokoan jartzen diren sariak aldatzen ditu Kontseiluak, ekimenaren antolatzaileak. "Euskal Tonbola ezaguna da jada euskaldunon artean, baina urtero joko honetan parte hartzen dutenak harritzen saiatu nahi dugu, joko bera gero eta erakargarriagoa egiteko", adierazi du Iker Gómez de Segurak, Kontseiluko finantzaburuak.

Sari tentagarririk ez da faltatuko; hala nola, edonon filmak ikusteko DVD eramangarri berriak, TDTak, mahai jolasak edo etxerako DVD irakurgailuak. Ukigarriak diren sariez gain, bestelakoak ere eskaintzen ditu Euskal Tonbolak: Argiñano jatetxe ezagunean afariak bi lagunentzat, Iruñeko Planetariumerako sarrerak edo Pirinioetan asteburuak 8 lagunentzat, esate baterako.



Renault Twingo berria



Autojiro hegaldia



42 hazbeteko plasma TB



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Euskal Tonbola Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak abiarazitako ekimena da. Erakunde honek euskararen erabilpena gizartearen sektore guztietara zabaltzeko egiten du lan, eta bide horretan aurrerapauso sendoak ematen jarraitzeko finantza-iturrietako bat du Euskal Tonbola. Euskararen bultzatzea eta jolasa elkar hartuta, ekimen arrakastatsua da dagoeneko Euskal Tonbola. 2006an bertan, ehunka mila lagunek hartu zuten parte egitasmo honetan, eta, abiatu zenetik, 600.000 eurotik gora banatu ditu saritan Euskal Tonbolak.

Gipuzkoarekin hasi eta Bizkaian jarraituko du bere ibilbidea Euskal Tonbolak; uda ostean Nafarroa, Araba eta Iparraldean barrena ibiltzeko. Guztira 1.400 tabernetan izango dira eskuragarri Euskal Tonbolaren boletoak. Txartel bakoitzak, ohi bezala, euro bakarra balio du. "Joko honen bidez erraza da lagun artean ongi pasatu eta, bide batez, euskararen sustapenari laguntzea", azaldu dute.

Txartelak nagusiki tabernetan salgai egongo badira ere, bestelako saltokitan ere aurki litezke, okindegi edota janari dendatan, esate baterako. Sari gehienak, gainera, txartela erosi den tokian bertan eskuratu ahal izango dira. Aurten, bestalde, udan zehar euskal geografiako turismo guneetan ere presente izango da Euskal Tonbola: kanpinetan, igeri-

leku eta hondartza inguruko tabernetan edota udatiarren bilgune izaten diren bestelako tokietan alegia.

Euskal Tonbolan parte hartzen duten Irun eta Hondarribia-ko herri eta tabernak honakoak dira:

Herria eta tabernak:

Hondarribia:

Itxaropena
Rafael
Lanbroa
Enbata
Etxeberri
Ondare okindegi-
gozotegia
Bar Antonia
Danontzat

Sunbilla
Kukaña
Hazia HT
Goibela
Yenes
Olagorri jatetxea
Mari ostatua
Ortzargi
Kabi-Gorri
Faisan
Candillejas
Eskifia
Laxoa
Migel
Charlot

Irun:

Bar Nuevo

Egin zure apustua, esan bai euskarari eta zorte on!

Euskaraz bizi eta rist-rast irabazi!

Euskal Tonbola
euskarari

asteburuak Pirinioetan 8 lagunentzako

42" plasmak

afariak

auto-giro hegaldiak

kotxeak

DVD-ak

TDT-ak

txartelak salgai Gipuzkoa osoko tabernetan

1e

KONTSEILUA

1931 eta 1951ko Bidasoako nazionalismoari buruzko lana argitaratu da



Koldo Ortega

Aitziber Lekuona hondarribiarrak lan interesgarri bat burutu du


Duela aste gutxi Hondarribiko Zuloaga Etxean liburu interesgarri baten aurkezpena izan genuen. "Garai bat, mila istorio", Aitziber Lekuona Ilundain herritarren lana, 'Rafael Picabea y Leguía' iker-kuntza lehenengo bekaren irabazlea hain zuzen.

Liburuaren izen osoa 'Garai bat, mila istorio, Hondarribia eta Irungo Nazionalisten testigantzak bilduz (1936-1951)' da. Irun eta Hondarribiko Euzko Alderdi Jeltzaleko Batzordeek deitutako beka baten ondorioa da, Bidasoa Beheko historiaren zati bat berreskuratu asmoz, hau da, Bidasoa eskualdean Euskal Nazionalismoaren historia ezagutaraztea.

Aitziber Lekuona historialaria (Hondarribia, 1983) 2005. urtean bekaren irabazlea gertatu zen. Lehen proiektu bat zena gaur errealitate bilakatu du. Lanak historiak, aipamenak, informazioak eta Irun eta Hondarribiko historia orokorrean eta Bidasoako eskualdean euskal nazionalismoaren historia partikulari ere ezagutzera ematera lagunduko duten datu asko azaltzen ditu.

Gaur egun, gerra zibila eta ondorengo urteak bizi izan zituztenen testigantzak biltzeko aukera bada, baina denborak aurrera egin ahala aukera hauek behera egiten dute.

Hori haintzat hartuta, Hondarribia eta Irungo nazionalisten testigantzak biltzea ezinbestekoa ikusi da, beraiek baitira garai hartan inork baino hobeto gertaerak eta sentimentuak azaltzeko gai direnak.



Aitziber Lekuonaren liburua

Lekuonak, tokiko historia eraikitzea izan du helburu, horretarako iturri historikoen azterketa sakonetaz, garai hartan euskarari emandako trataeraren azterketaz eta, eskualdean urte beltz haiek pairatu zituzten abertzaleei egindako elkarriketez baliatu delarik. Azken finean, XXI. mendeko belaunaldi berriei lagungarri suertatuko zaien memoria historikoa berreskuratu nahi izan da.

Xabier Olaizola eta Iñaki Gezala Irun eta Hondarribiko EAJ/PNVko lehendakariak liburuaren hitzazurrean esaten dutenez, "lan hau burutu ahal izateko bidea luzea izan da, eta zaila momentu batzuetan. Dokumentuetan oinarritutako lan historiko bat gauzatzeko bada-

kigu artxiboetara joan eta han aurkituko dugula, baina non aurkitu garai hartako gertakariak azaltzeko diren pertsonak? Bati eta besteari galdetzea izan da lanaren oinarria".

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA
Telf.: 943 64 42 12

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Garai bat da guztiontzat, liburuaren izenburuan agertzen den bezala, 1931etik 1951 bitarte. Hala ere istoriak mila dira, gertakari haiek bizi izan zituzten pertsona bakoitzak berea baitauka. Liburuan, besteak beste, Primo de Riveraren diktadurak euskal abertzaletasunarentzat eta orohar, euskal kulturarentzat izandako eragina, kultura horren berpiztea eta 1936ko altxamendu faxistaren ondorioak aztertzen dira.

Batzokiak eta erbestea

Hainbat gai jorratzen dira lan mardul honetan. Primo de Riveraren diktaduratik hasita, II. Errepublika, batzokiak eta alderdiaren (EAJ) inguruko erakundeen aipamenak, Gerra Zibila Irunen, Hondarribian izan ziren istiluak, Zerbitzu sekretuen garrantzia, erbestea eta herriko giroa, gartzela, Gernika Batailoia, Comète Sarea...

Liburu honi esker, adibidez jakin ahal izan dugu 1931ko uztailaren 27an ireki zela Batzokia. San Pedro kalean aurkitzen zen. Lehen pisuan Euzko Etxea zegoen eta bigarrenen Emakume Abertzaleen Batzarra. Oso ekitaldi sonatua izan omen zen. Jose Ariztimuño 'Aitzol' apaizak eman zuen meza nagusia, eta gero Segundo Garayalde orduko parrokoak bedeinkatu zuen Euzko Etxeko bandera, Julia Esuain eta Manolita Ursainek bordatua, eta Trini Saseta izan zelarik amabitxia.

Parrokian bildutako jendea jarraian Portura jaitsi zen jarraian. Erreterriako ezpatadantzariak euskal dantzen erakustaldi bat eman zuten, Zumarragako trikitiek lagunduta. Ondoren, Erreterria, Oiartzun, Lezo eta Donostiako mendigoizaleek egin zuten sarrera herrian, formazio militarrean eta ikurriñaren atzean. Bazkaria inauguratu berria zen etxearen aurrean egiteko asmoa zen baina bertako

tabernariak eragozpenak jarri zituzten, uda izanda herria turistak gainezka zegoen eta. Honen aurrean, alderdiko buruek eta hizlariak jatetxe batetara jotzea erabaki zuten.

Ekitaldia antolatu zutenen artean herritar asko zeuden, hona hemen batzuk: Candido Estolaza, Jose Etxaniz, Melchor Artola, Juan Sagarzazu, Bernardo Agueda, Antonio Salaberria, Pedro Aginagalde, Jose Oiarzabal, Julian Iri-doy, Gabriel Lapitz, Ascensio Lekuona, Carlos Zubeldia, Manuel Ugalde...

Liburua irakurri ostean, gainerantzekoei berdina egiteko gomendioa luzatzen dizuet. Oso liburu interesgarria da, ongi landu eta idatzitakoa. Hau gutxi balitz, esan ere II. Ikerketa beka jadanik deitua dagoela, martxan dagoeneko. Eneko Sanz dabil lana burutzen, 'Urte iluneko ahotsak' izenekoa. 60-70. hamarkadetako Bidasoa Behereko euskal abertzaletasuna izango du aztergai. Hau bezain interesgarria izan dedila!



Errepublika garaian Batzokia San Pedro kalean zegoen

OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Kasino Zaharrak hamar eguneko bidaia antolatu du Castilla-Leonera

Kasino Zaharra jubilatuen egoitzak dato-
rren irailarako aste bateko txango bat
antolatu du Castilla-Leonera Benabente
herrira.

Irteera irailaren 24 astelehena Alamedatik goi-
zeko 7.30etan eta etorrera 30ean arratsaldez.

Izenemateak gaurtik aurrera egin ahal izango
dira egoitzeko bulegoan. Bakoitzak gehienez bi
erreserba egin ahal izango ditu.

Prezioa 295€koa da pertsona bakoitzeko osoki
eta gelak bikoitzak izango dira denak. Erreserba
egiterakoan NANaren copia eta ordainketa
egiaztagiria gehitu beharko da. Lankide Aurrez-
kian egin beharko da diru sarrera, 3035 0049 06
0490040083 zenbakian.

Kasino Zaharreko bulegoa astelehen, asteaz-
ken eta ostiraletan irekitzen da, 10.30etatik
12.00etara abuztuan izan ezik ITXITA egongo
dela.



Benavente bisitatuko dute jubilatuek

Egoitza abuztuaren 3tik irailak 2 arte itxiko da

Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik jakinarazten denez, udako oporrak direla eta, "Kasino Zaha-
rra" Adinekoen Etxea datorren abuztuaren 3etik irailaren 2ra, biak barne itxita egongo da.
Irekitia mantenduko diren zerbitzu bakarrak ile-apaindegia eta podologiakoak izango dira.

Informazio gehiagorako, 943 111291 telefonora deitu.

kai zahar
pub
almirante alonso, 12

TRUCK

truck
diskoteka
foru kalea, 13

kaialde

jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

Sante Sensitive: eguzkia lasai hartzeko aukera

Udan gaude, eta bati baino gehiagori beltzaren egoteko gogo bizia sartzen zaio. Orduan, han doa korrika eta presaka eguzkipean jartzera! Nahi den kolorea lortzea, ordea, ez da egun bateko kontua, eta azkarrago beltzarantzekotan krema babeslerik erabiltzen ez bada, berriz, oso litekeena da erretzea. Nola saihestu arazo horiek guztiak? Sante Sensitive kremaren bidez.

1920ko hamarkadan Coco Chanelek larruazal beltzarena modan jarri zuenean, ez zuen eguzkiaren eta larruazaleko minbizien arteko loturaren arrastorik. Izatez, moda hori jaio eta eguzkiaren arriskuak frogatu zirenerako urte dezente pasatu ziren. 1960-1970eko hamarkadetan jendea larruazala txokolate-kolorekoa izaten saiatzen zen, eta gerora ikusi ziren horren ondorioak: 1980ko hamarkadan izugarri hazi ziren larruazaleko minbizikasua. Horrekin batera, eguzki-izpien eraginei buruzko ikerketa asko egin ziren eta, besteak beste, UVB izpiak larruazaleko zelulen DNA aldatzeko gai zirela frogatu zen.

Sante Sensitive-ri esker, UVA eta UVB izpien aurka azal sentiberekin orain arte izan dituzten arazoak gaitutuko

dituzte. Eguzkirako daukan filtroari esker, lasai har daiteke eguzkia, hala ere beti gehiegikeriarik egin gabe.

Azkenaldian, eguzkiak sortzen dituen kalteak hainbeste aipatzen direla eta, badirudi ahaztu egin direla eguzkia hartzearen alde onak. Esate baterako, larruazalean D bitaminaren sintesia eragiten du, sistema immunea indartzen du, odol-zirkulazioa bizkortzen du, erreuma hobetzen du, hormona sexualen kopurua igoarazten du eta eragin onuragarria du psoriasian eta larruazalaren beste gaixotasun batzuetan. Horretaz gain, depresioak arintzen laguntzen du; hain zuzen, negu luzeak eta eguzki-ordu gutxi dituzten herrialdeetan eguzki-ezak depresioa, narritadura, nekea, insomnioa eta suizidiorako joera areagotzen dituela ikusi da.

Ofertas Eskaintzak

-SANITURI soja esnea 1 l: 1,90 €

1+1 dohainik

-Eco-Salin fruitu marmelada 325 gr.: 3,68 €

1 + 1 dohainik

-Cookies Sprits Molen azukrarik gabeko

gailetak 150 gr.: 2,60 €

1 + 1 dohainik

-Cookies txokolate Molen azukrarik gabeko

gailetak 150 gr.: 3,05 €

1+ 1 dohainik

-GHF 3-D erreala jele 2000 mg.: 18,88 €

1 + 1 dohainik

-Aloe bera zukua (aloe garbia) 1l.: 17,20 €

1 + 1 dohainik (aloe bera zukua 500ml.)

.Arreta pertsonala




EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



EZ DADILA EGUZKIA SARTU


Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizuten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriez, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europan barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditi aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagutietatik frankismoa arte. Horretarako 15

historialariko taldearen lankidetzak izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidaragarrtasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Orteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona

asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatzen ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Jose

Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindari buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzo-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA

Telf: 943 64 25 25



Oporrak prestatzen

UDARAKO BARNETEGIAK



Uda honetan euskera ikasteko asmoa baldin baduzu, barnetegia aukera ezin hobe da.

Ez dakizula zeintzuk diren udan ematen dituzten ikastaroak?

Bulegoan, barnetegiaren zerrenda bat dugu behar diren datu guztiekin: telefonoa, helbidea,...

Ikusiko duzu nola zure euskera maila asko hobetzen den!!!

WEB ORRIALDE BERRIA!!!!

Gipuzkoako GIBen web orrialdea aldatuko dugu.

Laster www.gipuzkoangazte.info blogean behar duzun informazio guztia eskuratuko duzu: lan-eskaintzak, ikastaroak, turismoa, etxebizitza, etab.

Gune honetan zure iritzia eta iradokizunak idatz ditzakezu.

Honetaz gain, BULETINA ere aldatuko dugu eta DISEINU BERRI batekin jasoko duzu!!!!

Udara iritsi da eta honekin...oporrak!!!!

Oraindik ez dakizu nora joan oporrak pasatzera?



Orduan sartu bidaiatekan, eta aukeratu nora joan!!

www.gipuzkoangazte.info/bidaiateka

12-34 urte bitarteko adina baduzu, oporrak pasa eta gero, partehartu gure sariketan, "Aizue, Gomendatzen dizut..."

Heman egon zaren lekuaren gomendioa.

INFO gehiago BULEGOAN edo www.aizue.com

Sari interesgarriak daude...



Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Nola du izena parke honek ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Ekaineko alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Iraide Arroyo Tumas**. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den baserria Muliata da. Joan orain ikus-tera, laister bota egingo dute eta. Bigarren saria, eta ondorioz, liburu sorta bat, **Maitere Irastorza Ugaldebere**-k irabazi du.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Herriko toki oso ezagun batean dagoen parke baten inguruan da. Ez da inor egongo herrian hortik igaro ez denik, baina zen da bere izena?

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Zerbitzura, abuztuaren 20a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.

GURE ETXEA

CAFETERIA

Gosariak
Eguneko menuak:
4 sarrerako
4 bigarren platera
Afaltzeko plater konbinatuak

C/ San Pedro ,34
Telf. 943 645 597
20280 HONDARRIBIA

Goxodenda

eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Duela 100 urteko hondartzaren irudi bitxia



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilerok ez da zertan argazki berdinak atera behar. Kasu honetan, askotan erabili dugun Jose Mari Castilloren 'Hondarribia Atzo' liburura jo dugu, 78. orrialdera hain zuzen.

Gutxi gora behera duela 100 urteko argazki eder bat dakarkizuegu. Hondarribiak, zenbait gunetan urte hauetan jasan duen aldaketa haundia ikusteko oso baliagarria den irudi bat da. XX. mende erdialdera Ramon Iribarren injenieriak eraldaketa haundia egin zuen Hondarribiko hondartzan. Espigoi bat eraiki zuen eta itxura berria hartu zuen hondartzak.

Higer-ko itsasargira doan bidea Espainiako Gobernuak egin zuen 1881-1885 bitartean. Bitxikeri bezala, esan Udalak lurra eta hamar mila pezeta jarri zituela bere poltsikotik.

Hala ere, historian zehar hondartzak egitura arras desberdina izan du. Irudi honetan ikus daitekeenez, hondarra gaur egun imaginatu ezin dezakegun tokiraino heltzen zen.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzute.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Higer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAk jasotako datuak:

Ekaina2007

JAIOTZAK EKAINAN

- 1ean:** AIMAR Otazo Bertran, Donostiako Felipe eta Donostiako Maritxellen semea.
- 5ean:** ENEKO Elduayen Jimeno, Bilbaoko Jesus eta Tolosako Ane Mirenren semea.
- 5ean:** AIMAR Gilo Rodriguez, Donostiako Jose Ignacio eta Donostiako Vanessaren semea.
- 12an:** HUGO Alvarez Vilares, Donostiako Sergio eta Donostiako Soniaren semea.
- 16an:** JOANES Altuna Sanchez, Hondarribiko Jon eta Donostiako Monicaren semea.
- 18an:** ARIANE Yubero Zubialde, Hondarribiko Aitor eta Irungo Amaiaren alaba.
- 18an:** TOMAS Egiazabal Visiers, Donostiako Juan Jose eta Donostiako Maria Torreciudadaren semea.
- 19an:** MIKEL Olazabal Sorondo, Irungo Jose Maria eta Irungo Soniaren semea.
- 19an:** IBAN Tejada Angulo, Erreenteriako Javier eta Erreenteriako Leyreren semea.
- 21ean:** MARTXEL Agirre Elozegi, Donostiako Aitor eta Hondarribiko Miren Saioaren semea.
- 22an:** ROKE Aldai Elorza, Donostiako Roque eta Donostiako Carlaren semea.
- 23an:** JOAR Laka Gartzia, Erreenteriako Yeneko eta Hondarribiko Nahualiren semea.
- 26an:** MATTIN Bereau Sagarzazu, Irungo Unai eta Irungo Nerearen semea.
- 27an:** ANE Diaz Sanchez, Coria-ko(Caceres) Julian eta Donostiako Maria Isabelen alaba.



EZKONTZAK EKAINAN

- 2an:** DAVID Bravo Avila, Donostiakoa, eta MARIA IDOIA Rodrigo Amunarriz, Hondarribikoa.
- 2an:** ENEKO Aranburu Balerdi, Hondarribikoa, eta ANA ISABEL Fernandez Fernandez, Irungoa.
- 9an:** MIGUEL Vazquez Oiartzun, Donostiakoa, eta ZOILA NOEMA Garcia Ramirez, Donostiakoa.
- 9an:** URKO Lekuona Gonzalez, Hondarribikoa, eta EDURNE Jauregi Sagarzazu, Hondarribikoa.
- 9an:** RAUL Barras Risco, Hernanikoa, eta NAIARA Erauso Sanz, Irungoa.
- 16an:** ASIER Gezala Oiarbide, Hondarribikoa, eta CANDIDA Navarro Llorca, Alcoy-koa (Alacant).
- 23an:** ASIER Eseberri Sainz, Irungoa, eta AMAIA Agirre Arin, Hondarribikoa.
- 23an:** ASIER Eskamendi Huegun, Hondarribikoa, eta NEREA Biguria Azkarate, Iruñeakoa.
- 30ean:** JOSEBA IÑAKI Amorrortu Sagarzazu, Hondarribikoa, eta AINHOA Higos Manterola, Irungoa.
- 30ean:** AITOR Sagarzazu Erauskin, Hondarribikoa, eta VIRGINIA Oianguren Espilla, Donostiakoa.



HERIOTZAK EKAINAN

- 7an:** JUANA Iglesias Leonardo, Donostiakoa, 90 urte, Ama Guadalupekoa kalean.
- 8an:** CONCEPCION Balerdi Alza, Hondarribikoa, 55 urte, Irunen hila.
- 8an:** IGNACIO Lasarte Arana, Donostiakoa, 94 urte, Ramon Iribarren kalean.
- 9an:** MARIA CANDELAS Zamarreño Gonzalez, Albergueria de Argañon-goa (Salamanca), 88 urte, San Gabriel egoitzan.
- 10ean:** JOSE MANUEL Mitxelena Urrestarazu, Hondarribikoa, 59 urte, Bustiñalde baserrian.
- 15ean:** EDURNE Sagarzazu Urtizberea, Hondarribikoa, 87 urte, Itsasargi kalean.
- 15ean:** LUCIA Balza Fernandez, Erandiakoa, 90 urte, Gaintxurizketan.
- 17an:** MARIA PILAR Etxeberria Azkue, Hondarribikoa, 59 urte, Etxenagusia kalean.
- 19an:** CELESTINO Etxegarai Olazabal, Hondarribiakoa, 96 urte, Amute kalean.
- 23an:** ENRIQUE Gutierrez Quintana, Reocin-goa (Kantabria), 86 urte, Zuloaga kalean.
- 23an:** JUAN JOSE Hernandez Calvo, Irungoa, 66 urte, Kosta kalean.



EKAINAKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik gorena:	32,2° C, hilaren 19an.
Temperaturarik beherena:	12,4° C, hilaren 2an.
Bataz besteko tenperatura:	19,2° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 72.
Euri-litroen kopurua:	84,1 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 9an 27,2 litro.
Euri indartsueneren unea:	hilaren 9ko 17,52tan, 55,8 litro.
Egun euritsuak:	15 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak	0 egun
Ekaitz egunak	4 egun
Behe-laino egunak:	1 egun
Ihintz egunak:	10 egun
Zeru oskarbi:	0 egun
Zeru lainotua:	17 egun
Zeru iluna:	13 egun
Eguzki kopurua:	164,9 ordu
Bataz besteko presioa:	1015,0 milibar
Presiorik gorena:	1026,6 milibar, hilaren 1ean
Presiorik beherena:	1002,8 milibar, hilaren 14an
Haizea >55 Km/ord.	Egun bat
Haizerik indartsuena:	hilaren 9ko 16,51etan, 58 Km/ord.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA- BEHERAK EKAINAN

Altak:Jaiotzak: 14, eta kanpotik etorriak: 45

Bajak:Hildakoak: 11, eta herritik joanak: 56

Biztanle kopuru orokorra: 16.405 bizilagun.

EKAINAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 320 euskaraz, 1125 gaztelaniaz eta 20 bestelakoak. Guztira: 1471 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 31 euskaraz, 115 gaztelaniaz eta 20 bestelakoak. Guztira: 153 liburu.

Bazkide berriak: 5 gizon eta 18 emakume. Horietatik 12 heldu eta 11 haur. Guztira 23.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak: Euskeraz:Euskal leiendak.- Erein.

Gaztelaniaz:COUSINS, Lucy. - Los regalos de Maisy.- Serres

Helduak: Euskeraz:AUSTER, Paul.-Bidaia scriptoriumean zehar.- Alberdania

Gaztelaniaz:FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18

Tel.: 943 64 17 65 - 20280 HONDARRIBIA





URTE
25
ANOS


Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com

Argazkia: "Argazkiak, Hondaribia atzo"
José María Castillo



www.doble-a.com



Amute 8 - behe C Hondarribia
Telf.: 943 667 003

doble A PROTECCION SOLAR

Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak